



STEILASen prentsa-oharra oposizio deialdiaren inguruan Departamentuarekin izandako Mahai Sektorialaren ondoren

Gaur Hezkuntzako Mahai Sektorialean Departamentuan 2016ko oposizioen deialdiaren zirriborroa aurkeztu digu sindikatuoi. Bilkura hau bukatu ondoren **steilas** sindikatuak honako hau eman nahi du aditzera:

1.- Erabat arbuiatzen dugu LPEren edo oposizioaren lanpostu banaketaren proposamen berria. Jauzi esanguratsua egin da, hots, LEP teknikoak izatetik erabat politikoa den eskaintzara egin dute, eta hau guztia egin dute alderdi eta sindikatu jakin batzuren eskera asetu nahian. Hauek, inolako argudiorik gabe, exijitu dute euskara profila eskatzen zuten Haur eta Lehen Hezkuntzako plazak kentzeko, kopurua jaisteko, edo orain erdietsi bezala, atzeratzeko azterketak. Departamentuak aurreko eskaintzaren izaera teknikoa defendatu du, eta **steilas** sindikatuak – eskaintza urria dela azpimarraturik ere – hori bera defendatu du, jakin baitakigu legeak zer nolako mugak jartzen dituen plaza gehiago eskaintzeko edo bestelako hizkuntza eskaerak eskatzeko.

2.- Oposizioak prestatzen ari direnekiko errespetu eza nabarmena izan da, eta gogorki errefusatzen dugu. Pertsona hauek jasan duten kaltea neurtezina da, gainera kendu egin da intineritate maila handiena den espezialitateetan, eta horren ondorioz plaza gehien eskaintzen ziren espezialitateak ziren.

3.- Zirriborro honetan beste bidegabekeria bat ere betetzen da: plazak, ezpezialitateetan, hizkuntzetan eta sarbide moduetan banaturik daude. Horrela, pertsona elebidunekiko bazterkeria betikotzen da. Azpimarratu nahi dugu Departamentu honetan soilik egiten dela bereizketa hau. Erabaki hau erabaki politiko hutsa da, hainbat alderdi eta sindikaturen txantajearen fruitua.

4.-Steilas guztiz desados dago gaur egun funtzio publikoan sartzeko dagoen moduz, baina badakigu, tamalez, beste bideak bilatzea ez dela Nafarroako Gobernuaren betebeharra. Bere afera da ordea, eta behin eta berriro aldarrikatu duguna, probak zuzentzeko ebaluazio irizpideak finkatzea, argitaratzea eta ezagutaraztea aurkeztu behar den ororentzat, eta eskakizun honi ez diote jaramonik egin. Zentzugabekoa da irakasleoi gure arloko ebaluazio irizpideak ikasle eta bai gurasoei banatzeko exigitzea eta aldiz, lan publikoan sartzeko ez jakitea nola ebaluatuko gaituzten.

5.-Irailen 60/2009 Foru Agindua aldatzeko bat egin genuen sindikatu guztiok eta OPEri babes ematea baldintza hau betetzeari lotu genuen. Hilabete hauetan ez da gai honen inguruan deus aurreratu. Ez dakigu benetan aldatzeko asmorik dagoen eta ezta nola egingen den ere.

6.-Egoera honen aurrean STEILAS sindikatuak, LAB eta ELArekin batera mobilizazio kanpaina bat martxan jarriko du. Lehenengo ekimena datorren astelehenean, otsailak 8, goizeko 12:00etan Hezkuntza Departamentuaren aurrean egingo dugun elkarretaratzea izango da "LEP Iruzurrari EZ, Aldaketari BAI".

www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus